

Liburuak

KRITIKA

Tatuaia bat ene begietan. Txili Lauzirika.
Susa. 92 orrialde. 12 euro.

Helduen literatura
Igor Estankona



Esnatzean

“GOIZEAN ESNAZTEAN/ izarak bezala/ tolesturez beteak daude/ gure ametsak”.

Liburuari akabera ematen dion haiku antzeko honek laburbiltzen du Txili Lauzirikaren ahalegina bere *Tatuaia bat ene begietan* berezi honetan. Denbora (“goizean esnatzean”), gauzen erlatibitatea (“tolesturak”), eta gizakiak dituen askatasun, maitasun, aldaketa ametsak (“gure ametsak”).

Batzutan pentsamenduek gauzen gordintasuna jabaltzen dute, eta liburuak pertsona. *Tatuaia bat ene begietan* prudentzia handiarekin idatzitako liburua da, ez da poesia bat zabal-zabalik eta sentimendua dariola dagoena. *Tatuaia bat ene begietan* da ariketa estilistiko bat, burrukaren eta maitasunaren aldekoa, baina bietan edertasuna bezala eskarmentua aurkitu duen poeta arrazional batek egindakoa. Ariketa baten antzekoa da, poetak bakarrean egiten duena, bere burua hobeto kokatzeko mundu hain aldakor honetan. Horregatik da interesgarria, baina horregatik da gozamen ere erlatiboa. Ez bero ez hotz, zero graduan mantentzen den poemarioa da, irakurleak enpatia sano handia sentitzen ez badu behintzat idazlearen kezkekiko.

Eta hala ere badauka liburuak asko emateko, edozeinentzat, hartzen badaki behintzat. Idazkera fin eta zailaren aldekoek esango dute poemek buelta pare bat gehiago merezi dutela, baina hori ere ez da izaten beti horrela: freskotasuna galtzen dute askotan gauzek, lar igurtziz gero. Urteko ardo berde alaiaren aldekoak direnek gozatuko dute gehiago, poesia datorren moduan papereraturik dago-eta maiz. Adibidetzat, eta hobeto ulertzeko, *Egun berri bat etorriko da* poemaren zatitxo bat hona ekartzea nahikoa da: “3 edo 4 argazki poster 1/ eta norbaiti ostutako hitzak/ gutun bakan batzuetan tristura/ mukizapien alboan part botata”. Zenbakien erabilera hori, enumerazio kaotiko xamarak, onomatopeiak... surrealismoari asko zor dio Txili Lauzirikaren idazkerak. Artistikoki atsegin ditu eite libre eta onirikoak, baina mezuak, berriro diogu, gehiago dauka arrazionaletik. Bat egiten dute liburuan mezuaren komunikazio hutsak eta sorpresa eta esperimentazioaren nahiak.


Ez ote da izango azken buruan *Tatuaia bat ene begietan* Txili Lauzirikak bere buruarentzat idatzitako zerbait, ikerketa poetiko bat bere nortasunaren ingurukoa?

Ez al dugu guztiok gauza bera egiten esnatzen garen bakoitzean; gure buruari galdetu ea zoriontsuak garen, eta beste bost minutu eskaini loari, ametsi? “Emaizkidan 5 minutu/ behingoz bada ere/ amets egiteko”. ■

Euskararen iturriaren bila dabilen saiakera

Saiakera bat publikatu du Xabier Soubelet *Xubiltzek* (Ziburu, 1953). Baina, egileak berak liburuaren aitzin-solasean argi eta garbi dioenez, ez du lan zientifikorik egin nahi izan, nahiz eta fonetikaren, fonologiaren eta antropologiaren elementu batzuk erabili dituen. “Poetikoa” da, egilearen bera-

ren esanetan, euskararen iturriaren bila egin duen saiakera hau. Dena dela, egilearen adierazpen umil horien atzean, lan eskerga ezkutatzen da: besteak beste, liburu honen idazteko 25 urte inguruko lana dagoela aitortu baitu. Ez da makala emaitza. Oso gomendagarria gure hizkuntzaren jatorriaren bila modu intuitiboan abiatu nahi duen edonorentzat. ■



Izotzetik izanera.
Xabier Soubelet.
Elkar.
294 orrialde.
19,50 euro.

Gipuzkoan polizia sortu zenekoa

David Zapirain Karrikak (Trintxerpe, 1968) 2007. urtean aurkeztu zuen doktorego tesia. Haren izenburua, honakoa: *Mikeleteak eta bidelapurak. Gizarte kontrolaren aldaketak Gipuzkoan tradizionalen 1688-1808*. Orain, Deustuko Unibertsitateak tesiaren egokitzapen hau argitaratu du, Gipuzkoan polizia sortu zen garaira garamatzana. *Gizarte kontrolaren aldaketak. Poliziaren sorrera Gipuzkoan, 1688-1808* liburuak gizarte kontrolerako hedatu diren erakundeen bilakaera historikoa aztertu nahi du. Eta bilakaera horren abiapuntuan gizarte kontrola nolabaiteko ongizatearekin lotzen zen unea jarri du; hortik abiatuta probintzian aurrene-

ko polizia sortu arterainoko bidaia eskaintzen du liburuak. ■



Gizarte kontrolaren aldaketak.
David Zapirain Karrika.
Deustuko Unibertsitatea.
371 orrialde. 18 euro.